

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 439/2024 Erabakia, uztailaren 23koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoari, zazpigarren plangintzaldirako (2023-2027)

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6. artikulua arabera, euskara, gaztelania bezala, hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

Bi hizkuntzen erabilera arautzeko, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea onetsi zen. Lege horrek 6. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela euskara zein gaztelania erabiltzeko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoeko harremanetan, bai eta aukeratzten duten hizkuntza ofizialean arreta jasotzeko ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko arau esparru orokorra ezarri zuen, eta euskal administrazio publikoari betebeharrak ezarri zien; hain zuzen ere, euskararen erabilera normalizatzeko planak 5 urteko plangintzaldietarako onestekoa.

Hizkuntza normalizazioaren arloko araudia foru administrazioa egokitzeko, Batzar Nagusiek onespena eman zioten Arabako Foru Administrazioan eta Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko martxoaren 31ko 10/1998 Foru Arauari.

Araudi hori betetz, une honetan Foru Gobernu Kontseiluari dagokio 2023-2027 plangintzaldi berrirako plana onestea.

Hala ere, hura egin ondoren, eta hura izapidetzearekin batera, Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua onetsi da, eta 86/1997 Dekretua ordeztu du.

Horri dagokionez, dekretu berriaren laugarren xedapen iragankorrek ezartzen du ezen erakunde bakoitzak dekretua indarrean jarri aurretik hasita zituen prozedurak aurreko araudia arabera arautu ahal izango direla. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren aplikazio eremuan dauden erakundeek urtebeteko epea izango dute otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan xedatutakoari egokitzeko, dekretu hori indarrean jartzen denetik.

Langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 37. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren nahitaezko txostena jasota.

Nahitaezko txostenak ikusita eta haietan oinarrituta, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoari, zazpigarren plangintzaldirako (2023-2027). Erabaki honen eranskin gisa doa.

Bigarrena. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategiko hau egokitu egingo zaio, 2025eko martxoaren 9a baino lehen, Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan jasotakoari.

Hirugarrena. ALHAOn argitaratzeko agintzea, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, gobernu onaren eta herritarren parte-hartzearen 1/2017 Foru Araua aplikatzearen ondorioz indarrean dauden publizitate aktiboko eskakizunen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,

Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

MARÍA JOSÉ FERNÁNDEZ ALONSO



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Foru Aldundiaren
EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

▶ **VII. plangintzaldia**
(2023-2027)



Aurkibidea

Sarrera	3.
1 Aurrekariak	4.
1a Lege arauak	4.
1b Aurreko plangintzaldiak	5.
2 Plan estrategikoaren xede nagusia eta ikuspegia	6.
2a Xede nagusia	6.
2b Ikuspegia	6.
3 Planaren eragin epea eta eremua	7.
3a Eragin epea	7.
3b Eragin eremua	7.
4 Hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun daten ezarpena	8.
4a Hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak	8.
4b VII. plangintzaldirako indize berria.....	11.
4c Administrazio unitateen izaera	11.
4d Derrigortasun data berriak esleitzeko irizpideak.....	12.
4e Atal elebidunak, erabilera mikroplanak eta lehentasunak.....	12.
5 Plan berria diseinatzeko metodologia	14.
5a AFAn hizkuntza egoeraren diagnostikoa	14.
5b Planaren egitura: KEMEN metodologia.....	15.
6 Hizkuntza egoera VII. plangintzaldiaren hasieran	16.
6a Hizkuntza gaitasuna	16.
6b Zerbitzu hizkuntza	17.
6c Lan hizkuntza	18.
7 Plan estrategikoa 2023-2027	19.
7a [1] ardatza: KUDEAKETA	19.
7b [2] ardatza: ERABILERA	31.
7c Foru erakundearen adierazle orokorra.....	43.
8 Antolakuntza egiturak	44.
8a Plan Estrategikoaren Koordinazio Batzordea	44.
8b Euskara Batzordea	44.
9 Baliabideak, komunikazioa eta ebaluazioa	45.
9a Baliabideak	45.
9b Komunikazioa	45.
9c Ebaluazioa	45.
Eranskina: KEMEN adierazleen taula bateratua	46.



Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak araubidezko marko orokorra ezartzen du, euskal herri administrazioek euskararen erabilerearen normalizazioaren eremuan egin beharreko lanari dagokionez. Langintza horretan bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintzaldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urterako plangintzaldiak egin beharra ezartzen du Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan. Zehazki, 4. artikulua ezartzen du, euskal herri administrazioetan hizkuntzaren normalizazio prozesua hezurmani dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onetsi eta gauzatu beharko duela. Era berean, lanpostu bakoitzari hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio eta, hala dagokionean, derrigortasun data ere bai.

Arabako Foru Aldundiak (AFA) orain arte lau plan onetsi eta garatu ditu. Abenduaren 18ko 63/2018 Foru Dekretuaren bitartez onetsi zuen VI. plangintzaldirako (2018-2022) plana, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

Orain VII. plangintzaldiari (2023-2027) dagokion bost urteko plana idatzi du Arabako Foru Aldundiak, eta helburua da, lege betekizunak betetzeaz batera, euskararen erabilera areagotzen jarraitzea, bai herritarrei ematen zaien zerbitzuan, bai foru erakundearen barruko zereginak egitean ere, betiere herritarren hizkuntza eskubideak betetzen direla bermatuz. Horrekin bat, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emanak ditu VII. plangintzaldirako irizpide orokorrak, herri administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko planak egiteko gida izan daitezen, eta irizpide horiek kontuan hartu dira VII. plangintzaldiko euskararen plan berria diseinatzeko.



1| Aurrekariak

1a| Lege arauak

Euskararen ofizialtasunaren araubide juridikoa Espainiako Konstituzioan, EAeko Autonomia Estatutuan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legean eta Euskararen Foru Arauan ezartzen da.

Konstituzioak 3.2 artikuluan xedatzen du gaztelaniaz gain Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak direla dagozkien autonomia erkidegoetan, bertako estatutuen arabera.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak 6. artikuluan dio euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala dela, eta Euskadiko biztanle guztiek dutela bi hizkuntzak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Hori bermatzeko, autonomia erkidego osoko erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dutela dio, eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituztela.

Estatutuaren agindu hori garatzeko xedearekin onetsi zen Eusko Legebiltzarrean azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzeko. Bi dira lege horren xede nagusiak: hizkuntza ofizialtasun bikoitza arautzea batetik eta, bestetik, euskararen erabilera normalizatzea; horregatik, haren artikuluetan behin eta berriz agertzen dira euskararen erabilera bultzatzeko botere publikoek dituzten zereginak.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak xedatzen du lanpostu zerrendetan lanpostuen hizkuntza eskakizuna eta, hala badagokie, derrigortasun data zehaztu behar direla.

Langintza hori guztia arautzen du, gaur egun, Euskal Autonomia Elkarteko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak¹. Bertan, xedatzen da bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak ezarriko direla eta herri administrazioek euskararen erabilera normalizatzeko plana onetsi eta gauzatu beharko dutela plangintzaldi bakoitzean. Gainera, langileen hizkuntza gaitasunaz harago doazen beste kontzeptu batzuk jasotzen dira: unitateen izaera, nahitaez bete beharreko indizea, indizearen araberrako helburuak...

Aipatutako arautegia Foru Administrazioa egokitzeko, Batzar Nagusiek 10/1998 Foru Araua onetsi zuten, Arabako Foru Administrazioan eta lurralde historikoan euskararen erabilera normalizatzeko.

¹Plan estrategiko hau egin ondoren, haren izapidetzearekin batera, Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua onetsi da, 86/1997 Dekretua ordeztu duena. Dekretu onetsi berri horren laugarren xedapen iragankorrak ezartzen du hura indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak aurreko araudiaren arabera arautu ahal izango direla.



1b) Aurreko plangintzaldiak

Lehenengo plangintzaldiari (1990-1995) ekitean, hizkuntza eskakizunak esleitu eta derrigortasun datak ezarri ziren.

Bigarren plangintzaldian (1995-2002) langileen hizkuntza prestakuntzarekin jarraitu zen eta hainbat derrigortasun data ezarri ziren. Gainera, lanean euskararen erabilera sustatzeko, ALET programa (Administrazioko Langileen Euskarazko Trebakuntza) jarri zen abian.

Hirugarren plangintzaldian (2003-2007) AFAko lehenengo euskara plan formalizatua egin zen eta aurrerapauso nabarmena izan zen hizkuntza normalizazioaren bidean; izan ere, hainbat atal elebidun eta erabilera mikroplan abiarazi ziren.

Laugarren plangintzaldian (2008-2012) hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezarri ziren AFaren era guztietako harremanetarako, elebitasuna bermatzeko ezinbesteko tresna.

Bosgarren plangintzaldian (2013-2017) hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen zabalkundean eta aplikazioan aurrera egin zen, eta horren ondorioz, zenbait lan prozeduratan txertatu ziren.

Seigarren plangintzaldian (2018-2022) ahalegin berezia egin zen hizkuntza egoera onena zuten unitateetako langileen hizkuntza ohiturak aldatzeko. Halaber, lehenengo aldiz heldu zitzaion Aldundiaren kontratu administratiboetan hizkuntza klausulak txertatzearen gaiari.



2| Plan estrategikoaren xede nagusia eta ikuspegia

2a| Xede nagusia

Plan estrategiko honen xede nagusia da Arabako Foru Aldundian euskararen erabilera areagotzen jarraitzea, bai herritarrei ematen zaien zerbitzuan, bai foru erakundearen barruko zereginak egitean ere, betiere herritarren hizkuntza eskubideak betetzen direla bermatuz.

2b| Ikuspegia

Plan estrategikoak duen ikuspegia oinarri hauekin eraiki da:

- Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako *KEMEN* metodologia:** herri administrazioetan hizkuntza normalizaziorako prozesuak dituen erronkei erantzuteko asmoz, VII. plangintzaldirako plan estrategikoa egiteko metodologia berria diseinatu du Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, *KEMEN* izenekoa, eta metodologia hori oinarri hartu da plan hau egiteko. *KEMEN* metodologia eta lan markoaren helburua da euskara plan eraginkorrak diseinatzea, kudeatzea eta haien jarraipena egitea.
- Erreferentziazko plangintza:** foru erakundeko arduradun politiko (diputatuak eta zuzendariak) eta tekniko (zerbitzuburuak eta atalburuak) guztientzako erreferentziazko plangintza izango da, urrats berriak egin daitezen euskararen erabilera sustatzeko prozesua foru erakundearen kudeaketa sisteman integratzeko.
- Zuzendaritza organoetan dauden pertsonen parte hartzea eta gidaritza:** AFaren 2023-2027 aldirako plan estrategikoaren erronka izango da euskararen normalizazioa foru erakundearentzat estrategikoa eta zeharkakoa izatea. Horretarako, zuzendaritza organoetako partaideen adostasuna, inplikazioa eta elkarlana lortzeko lan egingo da, hizkuntza normalizazioaren ardura har dezaten, plan estrategikoa garatu eta haren jarraipena egiteko.
- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak:** plan estrategikoa kudeaketa tresna eraginkorra izango da foru erakundeak indarrean dituen hizkuntza irizpideak ezarri eta jarraipena egiteko. Hizkuntza irizpideen helburuak dira herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta euskararen erabilera normalizatzea foru erakundearen, euskara ere zerbitzu eta lan hizkuntza izan dadin. Informazioa eta laguntza eskainiko da hizkuntza irizpide horiek foru erakundearen administrazio unitate guztietan ezarri eta bete daitezen.
- Jarraipen eta ebaluazio sistematikoa:** plan estrategikoari jarraipena egingo zaio, egindako lana ebaluatu eta egokitzapenak egiteko. Hizkuntza kudeaketaren ardura bere gain hartuko duen zeharkako egitura eraginkor bat eratuko da: Plan Estrategikoaren Koordinazio Batzordea. Batzorde hori Funtzio Publikoko zuzendariak, beste zuzendaritzetako arduradun politikoek, idazkaritza teknikoetako zerbitzuburuak (idazkaritza teknikorik ez dagoenetan, haren zereginen ardura duen unitateburuak) eta Euskara Zerbitzuak osatuko dute. Batzordeak foru erakundearen hizkuntza egoeraren berri izan beharko du, helburuak adostuko ditu eta haiek erdiesteko ekintzak antolatuzko neurriak bideratuko ditu.



3| Planaren eragin epea eta eremua

3a| Eragin epea

Planaren eragin epea bost urtekoa izango da. Foru Gobernu Kontseiluak onetsi eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, eta hurrengo plangintzaldirako plan berria onesten den arte iraungo du.

3b| Eragin eremua

Planak Arabako Foru Aldundiko sail guztiei eragingo die. Hona hemen sailen zerrenda:

- 1) Diputatu Nagusiaren Saila
- 2) Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila
- 3) Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saila
- 4) Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
- 5) Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila
- 6) Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saila
- 7) Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saila
- 8) Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila
- 9) Kultura eta Kirol Saila
- 10) Gizarte Politiken Saila



4| Hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun daten ezarpena

4a| Hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak

4a1| VI. eta VII. plangintzaldien hasierako lanpostu kopurua eta haien hizkuntza eskakizunak

86/1997 Dekretuak xedatzen duenez, lanpostu bakoitzari, bertan jarduteko gaitasuna kontuan harturik, hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio, eta, hala badagokio, derrigortasun data ere bai.

Foru erakundearen ikuspegi orokorra eta azken bost urteetako bilakaera erakustearren, honako taula honetan aurkezten da VI. plangintzaldiaren hasieran (2018an) zegoen eta VII. plangintzaldiaren hasieran (2023an) dagoen lanpostu kopurua eta haien hizkuntza eskakizuna:

1. taula. Plangintzaldien hasierako lanpostu kopurua eta haien hizkuntza eskakizunak.

Hizkuntza eskakizuna (HE)	VI. plangintzaldiaren hasieran		VII. plangintzaldiaren hasieran	
	Kopurua	%	Kopurua	%
1	77	8,2	74	7,7
2	456	48,8	447	46,3
3	267	28,6	305	31,6
4	123	13,2	127	13,2
4TG	12	1,3	12	1,2
Guztira	935	100,0	965	100,0

Iturria: Arabako Foru Aldundia; VI. plangintzaldia 2018 eta VII. plangintzaldirako lanpostu zerrenda 2023. Siadecok landua, 2023

VII. plangintzaldiaren hasieran, 965 dira foru erakundeko lanpostuak: horietatik % 46,3k 2. hizkuntza eskakizuna dute, % 31,6k 3. hizkuntza eskakizuna; % 7,7k 1. hizkuntza eskakizuna; % 13,2k 4. hizkuntza eskakizuna, eta gainerako % 1,2ak 4TG (teknikari gaitua).

VI. plangintzaldiaren hasieratik murriztu egin dira 1. eta 2. hizkuntza eskakizunei dagozkien lanpostuak; gehiago dira 3. hizkuntza eskakizuna ezarria daukatenak, eta berdin mantendu dira 4. hizkuntza eskakizunekoak.



4a2] Hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak

Foru erakundearen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak (DD) zein diren erakusten du hurrengo taulak –kasu honetan ere, azken plangintzaldiaren hasierako eta plangintzaldi berriaren hasierako datuak ematen dira–, eta honela daude banatuta, hizkuntza eskakizunaren arabera, 4TG hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak kenduta:

2. taula. Hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak (4TG duten lanpostuak kenduta)

Hizkuntza eskakizuna (HE)	VI. plangintzaldiaren hasieran			VII. plangintzaldiaren hasieran		
	Lanpostuak	DD duten lanpostuak		Lanpostuak	DD duten lanpostuak	
	Kopurua	Kopurua	%	Kopurua	Kopurua	%
1	77	3	0,9	74	3	0,8
2	456	214	62,2	447	227	58,3
3	267	120	34,9	305	152	39,1
4	123	7	2,0	127	7	1,8
Guztira	923	344	100,0	953	389	100,0

Iturria: Arabako Foru Aldundia; VI. plangintzaldia 2018 eta VII. plangintzaldirako lanpostu zerrrenda 2023. Siadecok landua, 2023

VII. plangintzaldiaren hasieran, derrigortasun data duten lanpostuak 389 dira, lanpostu guztien % 40,8. Azken ehuneko horrek ia 4 puntu egin du gora azken bost urteetan, % 37,2tik % 40,8ra.

4a3] Derrigortasun data duten lanpostuen betetze maila

Derrigortasun data duten lanpostuen betetze mailari buruzko datuak lanpostu horietan diharduten langile guztien egiaztatzeetatik atera dira, karrerako edo bitarteko funtzionario izan gorabehera. Hurrengo taulan jasotzen da, hizkuntza eskakizunaren arabera, zenbat lanpostu dauden hutsik, zenbat lanposturen langilek egiaztatu duten lanpostuaren hizkuntza eskakizuna eta zenbatek ez.

VII. plangintzaldiaren hasieran derrigortasun data duten foru erakunde osoko lanpostuak 389 izanik (374 beteak eta 15 hutsik), 351 lanpostutako langileek (% 94) egiaztatu dute dagokien hizkuntza eskakizuna; derrigortasun data izanda egiaztatu gabekoak 23 dira (% 6). 2018tik 2023ra, egiaztatutakoen kopurua 292tik 351ra igo da, eta, beraz, portzentaje igoera 4 puntukoa izan da: % 90etik % 94ra.



3. taula. VI. eta VII. plangintzaldien hasieran derrigortasun data duten lanpostuak, eta dagokien hizkuntza eskakizuna (edo altuagoa) egiaztatutako eta egiaztatu gabekoak

Hizkuntza eskakizuna (HE)	VI. plangintzaren hasiera						VII. plangintzaren hasiera									
	DD duten lanpostuak		Lanpostu hutsak		Egiaztatu dutenak		Egiaztatu gabeak		DD duten lanpostuak		Lanpostu hutsak		Egiaztatu dutenak		Egiaztatu gabeak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
1	3		0		3	100	0	0	3		0		3	100	0	0
2	214		8		186	90,3	20	9,7	227		6		205	92,8	16	7,2
3	120		11		100	91,7	9	8,3	152		8		141	97,9	3	2,1
4	7		0		3	42,9	4	57,1	7		1		2	33,3	4	66,7
Guztira	344		19		292	89,8	33	10,2	389		15		351	93,9	23	6,1

Iturria: Arabako Foru Aldundia; VI. plangintzaldia 2018 eta VII. plangintzaldirako lanpostu zerrenda 2023. Siadecok landua, 2023

4a4| Lanpostuen betetze maila, derrigortasun data izan ala ez

Hurrengo taulak erakusten du, derrigortasun data izan ala ez, zenbat diren lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatutakoak, 4TG hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak kenduta.

VII. plangintzaldiaren hasieran, AFAko lanpostuen % 59,9tan egiaztatuta dago lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna edo altuagoa; 546 lanpostu dira horiek. Duela 5 urte, 2018an, lanpostuen % 43,5etan (337 lanpostu) zegoen hizkuntza eskakizuna egiaztatua.

4. taula. VI. eta VII. plangintzaldien hasieran dagokien hizkuntza eskakizuna (edo altuagoa) egiaztatutako lanpostu beteak eta egiaztatu gabekoak (derrigortasun data izan ala ez, eta 4TG dutenak kenduta).

Hizkuntza eskakizuna	VI. plangintzaldiaren hasiera						VII. plangintzaldiaren hasiera					
	Betetako lanpostuak		Egiaztatu dutenak		Egiaztatu ez dutenak		Betetako lanpostuak		Egiaztatu dutenak		Egiaztatu ez dutenak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
1	69	8,0	40	58,0	29	42,0	68	7,5	44	64,7	24	35,3
2	443	51,2	188	42,4	255	57,6	431	47,3	300	69,6	131	30,4
3	244	28,2	143	58,6	101	41,4	296	32,5	195	65,9	101	34,1
4	110	12,7	6	5,5	104	94,5	117	12,8	7	6,0	110	94,0
Guztira	866	100,0	377	43,5	489	56,5	912	100,0	546	59,9	366	40,1

Iturria: Arabako Foru Aldundia; VI. plangintzaldia 2018 eta VII. plangintzaldirako lanpostu zerrenda 2023. Siadecok landua, 2023

Aurreko plangintzaldiaren hasierako datuekin alderatuz gero, 2023an altuagoa da langileen euskara gaitasuna: 2018an 866 lanpostutatik 149tako langileek (% 17,2) zeukaten 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatua. 2023an, 912 lanpostutatik 202tako langileek (% 22,1) dute 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatua. Ia 5 puntu egin ditu gora ehuneko horrek.



4b) VII. plangintzaldirako indize berria

86/1997 Dekretuak 11. artikuluan xedatzen duenaren arabera, plangintzaldi bakoitzean nahitaez bete beharreko indizeak zehaztuko du erakunde bakoitzean zenbat lanposturi esleituko zaion derrigortasun data. Indize hori finkatzeko, plangintzaldia hasten denerako indarrean dagoen Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabili dira, betiere, herri administrazio bakoitzari dagokion jarduera esparrua kontuan hartuta.

VII. plangintzaldi honetan 2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika dago indarrean eta, euskaldunak + (ia euskaldunak/2) formulari jarraituz, AFAk nahitaez bete behar duen indizea ehuneko 41,35 da. Beraz, 965 lanpostutatik 400ek izan behar dute derrigortasun data. Lehendik derrigortasun data ezarria daukaten lanpostuak 389 dira; beraz, 11 lanposturi esleitu behar zaie derrigortasun data.

5. taula. Arabako 2 urtetik gorako biztanleriaren euskara maila

	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
2 urtetik gorako Arabako biztanleak	100.874	31,0	67.179	20,7	157.144	48,3	325.197	100,0

Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 2021

4c) Administrazio unitateen izaera

86/1997 Dekretuko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako era honetara sailkatuko dira administrazio atalak:

- Jendaurreko atalak: beren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuarekiko harremanetan oinarritzen denean.*
- Gizarte mailako atalak: herri administrazioaren harreman sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte mailakoak direnean.*
- Atal orokorrak: beren zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.*
- Atal bereziak: atal berezizat joko dira bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten atal zein zerbitzuak. Gehienetan, eskuz egindako lanak burutzen dituzte, besteak beste, eraikinen mantenimendu eta kontserbazio lanetan, obra, garbiketa eta abarretan edo, bestela, lan teknikoak burutzen dituzte instalakuntza zein ekipoen, laboratoriorio eta antzekoen mantenimendu eta kontserbazio zereginetan.*

Sailtako organigramak finkatzean zehaztuko dira sailtako unitateen izaerak.



4d) Derrigortasun data berriak esleitzeko irizpideak

86/1997 Dekretuaren 17. artikulua xedatzen duenarekin bat etorritik, euskararen erabilera normalizatuz joan dadin, gutxieneko helburuak ezarriko dira. Gutxieneko helburu horiek derrigortasun indizearen arabera zehaztuko dira. Adierazi bezala, AFARI dagokion derrigortasun indizea % 41,35 da; hortaz, atal elebidunak jarri behar dira jendaurreko administrazio unitateetan, gazteriarekin harreman zuzena duten unitateetan eta gizarte izaerako unitateetan. Aurreko helburuez gain euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira izaera orokorreko administrazio unitateetan.

Hala, bada, derrigortasun data zein lanposturi esleitu erabakitzeko orduan, honako irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Lanpostua jendaurreko edo gizarte izaerako atal batekoa izatea
- Lanpostuari derrigortasun data jarrita, lanpostuaren atala atal elebiduna bihurtzea

4e) Atal elebidunak, erabilera mikroplanak eta lehentasunak

86/1997 Dekretuak atal elebidunaren definizioa ematen du 15. artikuluan:

Beren zereginak Euskal Autonomia Elkarterko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak.

Helburua dute, beraz, herritarrari ahoz zein idatziz zerbitzu elebiduna ziurtatzeaz gain, euskara ere lan hizkuntza izateko pausoak ematea.

Atal elebidun izendatuko dira honako baldintzak betetzen dituzten unitateak:

1. Unitatea osatzen duten langileen % 80k dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea. Laugarren hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, onartuko da langileak hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.
2. Unitatearen burua den langileak (zerbitzuburuak edo atalburuak) dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.

Plan estrategikoaren lehenengo kudeaketa planean aztertuko da unitateen hizkuntza egoera, atal elebidunak izendatzeko.

Administrazio unitate batek elebidun izateko baldintzak betetzen ez baditu baina betetzetik gertu badago, erabilera mikroplanak baliatuko dira bertan. Lanpostu solteetan ere baliatuko dira erabilera mikroplanak.



Horien bitartez, ahalegina egingo da elebitasuna bermatzeko eta euskararen eguneroko erabileran aurrerapenak egiteko.

Administrazio unitateak identifikatuta, lehenetasun hurrenkera honi jarraituko zaio normalizazio neurriak aurrera eramateko orduan:

1. Herritarrekin ahozko edo idatzizko ohiko komunikazioa dutenak.
2. Beste administrazioekiko harremanetan jarduten dutenak.
3. Foru erakundearen barruan funtsezko zerbitzuak eta zeharkakoak ematen dituztenak.



5| Plan berria diseinatzeko metodologia

5a| AFAREN hizkuntza egoeraren diagnostikoa

VI. plangintzaldiaren amaieran, AFAko Funtzio Publikoko Zuzendaritzak euskararen erabileraren egoeraren diagnostia egiteko ebaluazioa egin du, VII. plangintzaldiaren abiapuntuko egoera zein den jakin eta helburu berriak ezartzeko.

DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA:

Diagnostiko kuantitatiboa egiteko, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatutako KEMEN adierazle sistemako 48 adierazleetatik 41 adierazle neurtu dira galdetegi bidez. Ahalik eta informazio osatu eta zabalena lortzeko, hiru informazio iturri erabili dira: AFAko solaskideak (Euskara Zerbitzua), langileak eta arduradun politikoak. Honako hau da ebaluazioa egiteko erabilitako metodologiaren fitxa teknikoa:

Unibertsoa

- Arabako Foru Aldundia, erakunde gisa.
- Arabako Foru Aldundiko langileak. Guztira, 924 langilek osatu dute azterketarako unibertsoa.
- Arduradun politikoak. Lehenengoz prestatu da foru erakundeko arduradun politikoentzako galdetegia. 37ri bidali zitzairen eta 20 galdetegi jaso ziren erantzunda.

Lortutako lagina

Foru erakundeko langile guztiei eskatu zaie galdetegiari erantzun diezaioten, zehazki 924ri, eta 760ren erantzunak jaso dira (% 82), eta, % 95eko konfiantza tarterako, lortutako laginaren errore marjina orokorra + % 1,5 da. Gainera, langileei egindako inkestaren emaitzak AFAko zuzendaritzak ere aztertu dira.

DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA:


KEMEN adierazle sistemako adierazleak neurtzeko datu kuantitatiboez gain, diagnostiko kualitatiboa ere egin da, galdera irekiak eginez. AFAko langileen iritzi eta ekarpenak jaso dira, foru erakundeko euskararen egoeraz, orain arte euskararen erabilera normalizatzeko egindakoaz eta aurrera begira egin beharrekoaz.

Indarguneak eta hobetzekoak identifikatzeko informazio kualitatiboa jaso eta aztertu da.



5b) Planaren egitura: KEMEN metodologia

KEMEN metodologiak proposatutako egiturari jarraikiz antolatu da plana:



KUDEAKETA. Foru erakundearen plana nola gestionatzen den jasotzen du ardatz honek: planaren jarraipena egiteko egitura, sail eta zuzendaritza bakoitzak plana asumitu eta sustatzeko mekanismoak, planaren jarraipena nola egiten den, langileei plana nola komunikatzen zaien, langileek zer parte hartze duten, enpresak kontratatzerakoan hizkuntza irizpiderik jartzen zaien eta abar.

Honako arlo hauek hartzen ditu: euskararen kudeaketa orokorra, lidergoa, langileak, gaitasuna, euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa eta hizkuntza klausulak. Diagnostiko kualitatiborako ez da kontuan hartu euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa arloa.

ERABILERA. Foru erakundeak ahoz eta idatziz zein hizkuntzatan funtzionatzen duen jasotzen du ardatz honek, foru erakundearen barruan zein kanpokoekin dituen harremanetan, bai eta idatziak zein hizkuntzatan sortzen diren ere.

Honako arlo hauek hartzen ditu:

- Zerbitzu hizkuntzaren barruan: irudia eta herritarrekiko harremanak.
- Lan hizkuntzaren barruan: barne harremanak, kanpo harremanak, prestakuntza, baliabide informatikoak eta sortze hizkuntza.



6| Hizkuntza egoera VII. plangintzaldiaren hasieran

VI. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egitearekin batera, VII. plangintzaldiaren abiapuntuko egoera zein den jakiteko ikerketa bat egin du 2023an AFAk, eta ikerlan horren foru erakunde mailako datu orokorrak jaso dira atal honetan.

6a| Hizkuntza gaitasuna

Ahoz

% 43,9 da **ahozko gaitasuna**: ahoz, lan funtzioak euskaraz ondo betetzeko gaitasuna dute AFAko langileen % 32,6k, eta *oso ondo* % 11,3k.

6. taula. Ahoz, bere lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko langileek adierazitako gaitasuna (%)

	Ahoz, lan funtzioak euskaraz							
	Ez dut nire burua batere gai ikusten	Nekez, zailtasun handiekin	Hala nola, zailtasunekin	Ondo	Oso ondo	Ed/Ee	Guztira	N
Guztira	13,8	11,6	27,5	32,6	11,3	3,2	100,0	760

Iturria: Siadeco, 2023.

Idatziz

% 39 da **idatzizko gaitasuna**: idatziz, lan funtzioak euskaraz *ondo* betetzeko gaitasuna dute AFAko langileen % 31,1ek, eta *oso ondo* % 7,9k.

7. taula. Idatziz, bere lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko langileek adierazitako gaitasuna (%)

	Idatziz, lan funtzioak euskaraz							
	Ez dut nire burua batere gai ikusten	Nekez, zailtasun handiekin	Hala nola, zailtasunekin	Ondo	Oso ondo	Ed/Ee	Guztira	N
Guztira	13,7	12,5	32,2	31,1	7,9	2,6	100,0	760

Iturria: Siadeco, 2023.



6b) Zerbitzu hizkuntza

8. taula. Zerbitzu hizkuntza eta eremu horri dagozkion bi arloetako (irudia eta herritarrekiko harremanak) AFaren euskara adierazle orokorrak (%)

	Egoera (%)	Ponderazioa (%)
EREMUA: ZERBITZU HIZKUNTZA	65,8	
Arloa: IRUDIA	91,0	20,0
Arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK	59,4	80,0

Iturria: Siadeco, 2023.

Zerbitzu hizkuntza modura foru erakundearen kanpo komunikazioetan euskararen erabilera zer neurritan bermatzen den neurtu da bi arlo hauetan:

- **Irudia:** oro har, foru erakundeko errotulazio orokorrean, irudi korporatiboko elementuetan eta hedabide bitartez zabaldutako iragarki eta publizitatean, euskararen erabilera ia ehuneko ehunean bermatua dago, gaztelaniarekin batera; arloari dagokion euskararen erabilera datua % 91 da.
- **Herritarrekiko harremanak:** arlo honi dagokion datua % 59,4 da -herritarrekiko harremanetako hizkuntza erabilera datua kalkulatzeko, komunikazio mota hauetako hizkuntza erabilera neurtu da: AFAko langileak zein hizkuntzatan zuzentzen diren herritarrengana, hala eskatzen duten herritarrei zer neurritan ematen zaien zerbitzua euskaraz, herritarrentzako ekitaldi eta ikastaroetan zer neurritan egiten den euskarazko eskaintza, herritarrei ele bietan edo euskaraz bidalitako dokumentuen ehunekoa eta, herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei zer neurritan erantzuten zaien euskaraz edo ele bietan-.

Zerbitzu hizkuntza: aurreko bi arloetako emaitzekin, zerbitzu hizkuntzari dagokion adierazle orokorra kalkulatu da eta % 65,8 da zerbitzu hizkuntzari dagokion datua. Ehuneko hori ez da bi arloetako emaitzen batez bestekoa; foru erakundearen irudiari baino garrantzia handiagoa eman zaie herritarrekiko harremanei, ponderazio indize hauek erabilia: irudiari % 20 eta herritarrekiko harremanei % 80 (datuen haztapenerako erabiliitako ehunekoak Eusko Jaurlaritzaren KEMEN adierazle sistemakoak dira).



6c| Lan hizkuntza

9. taula. Lan hizkuntza eta eremu horri dagozkien bost arloetako AFaren euskara adierazle orokorrak (%)

	Egoera (%)	Ponderazioa (%)
EREMUA: LAN HIZKUNTZA	22,4	
Arloa: BARNE HARREMANAK	17,9	30,0
Arloa: KANPO HARREMANAK (entitate pribatuak eta herri erakundeak)	30,4	20,0
Arloa: PRESTAKUNTZA	20,8	15,0
Arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK	14,2	15,0
Arloa: SORTZE HIZKUNTZA	28,3	20,0

Iturria: Siadeco, 2023.

AFaren lan hizkuntzaren euskara adierazle orokorra % 22,4 da; emaitza hori lan hizkuntzaren eremuko egoera ebaluatzeko kontuan hartzen diren honako bost arlo hauetan egindako ebaluazioaren emaitza da, arlo bakoitzari dagokion ponderazio indizea aplikatu ondoren:

- **Barne harremanak:** ahozkoari dagokionez, lan bileretan eta oro har langileen arteko ahozko harremanetan zein hizkuntza erabiltzen den neurtu da; idatzizkoan, foru erakunde barrurako sortutako dokumentuak (instrukzioak, buletinak, aktak, deialdiak, txostenak, barne zirkularrak, mezu elektronikoak, jakinarazpenak...) zein hizkuntzatan idatzita dauden jaso da. Barne harremanen arloak biltzen dituen adierazle horietako emaitzekin kalkulaturako euskararen erabilera adierazlea % 17,9 da.
- **Kanpo harremanak:** sektore publikoko beste erakundeekin eta entitate pribatuekin ahozko eta idatzizko erabilera hartu da kontuan. AFaren kanpo harremanetako euskara erabileraren datua % 30,4 da.
- **Prestakuntza:** bi formakuntza mota hauek hartu dira kontuan: batetik, prestakuntza orokorra (euskarazko eskaintzarik egiten den eta langileek zein hizkuntzatan jaso duten); bestetik, hizkuntza trebakuntza (lanpostuko zereginak egiteko euskarako trebakuntzarik eskaini den). Adierazle horietako emaitzekin kalkulaturako prestakuntza alorraren euskara indizea % 20,8 da.
- **Baliabide informatikoak:** langileek euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoetatik zenbat erabiltzen diren euskaraz ebaluatu da, eta emaitza % 14,2 da.
- **Sortze hizkuntza:** langileei galdetuta euskaraz edo ele bietan zabaldu behar diren idazkiak zer hizkuntzatan sortzen diren, % 28,3 da sortze hizkuntzaren datua.



7| Plan estrategikoa 2023-2027

7a| [1] ardatza: **KUDEAKETA**

10. taula.[1] ardatza: KUDEAKETA

KEMEN ardatza	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
[1] ardatza: KUDEAKETA	27,1	50,0	300,0

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

Argibideak: KEMEN adierazle sistemari jarraikiz, aurreko taulako item bakoitzak honako hau adierazten du:

- *Hasierako egoera (%): VII. plangintzaldiaren hasieran, AFaren abiapuntuko egoera zein den adierazten du ehuneko horrek, lortu daitekeen baliorik altuena 100 izanda.*

Horrela, kudeaketa ardatzean, AFaren hasierako egoera, 2023an egindako ebaluazioaren arabera, % 27,1 da. Kudeaketa ardatzeko 6 arloren eta 18 adierazleren datuak jaso dira ebaluazio hori egiteko. Txosten honen hurrengo ataletan daude jasoak arlo eta adierazle horietako bakoitzaren datu zehatzak.

- *Aurreikusitako egoera (%): balio honek adierazten du VII. plangintzaldiaren amaieran AFA zer egoeratan egotea aurreikusten den.*

Arloz arlo VII. plangintzaldirako ezarri diren helburuekin, kudeaketa ardatzean AFArako aurreikusitako egoera % 50,0 da. Horrenbestez, bost urtetan, % 27,1etik % 50,0era, 22,9 puntuko jauzia egitea da ipinitako erronka.

- *Lortu ahal den gehieneko puntuazioa: KEMEN adierazle sistema berriarekin, eta ardatz, eremu, arlo eta adierazle bakoitzari eman zaion ponderazio indizearen arabera, erakunde batek lortu lezakeen puntuaziorik altuena zein den adierazten du. Guztira, KEMEN adierazle sisteman lortu daitekeen balio altuena 1000 izanik, kudeaketa ardatzean lortu daitekeen balio altuena 300 da eta erabilera ardatzean lortu daitekeena 700.*

KEMEN adierazle sistemaren bi ardatzak kudeaketa eta erabilera dira; kudeaketa ardatzak erakunde publikoetako euskara planen eraginkortasunerako giltzarri diren bi alderdi ebaluatzen ditu: euskara plana foru erakundearen kudeaketan txertatua egotea eta arduradun politikoak eta teknikoak izatea hizkuntza ofizialen erabileraren kudeaketaren gidari eta lider.



Egoera

- Hizkuntza kudeaketa ez dago foru erakundearen kudeaketa orokorrean txertatuta eta euskara planaren jarraipen sistematikoa egingo duen egiturarik ere ez dago.
- KEMEN adierazle sistemari jarraikiz kalkulatuta, kudeaketa ardatzaren AFAn abiapuntuko egoera % 27,1 da; ardatz horrek dituen 6 arloen ebaluazioa egin da AFAn: euskararen kudeaketa orokorra, lidergoa, langileak, hizkuntza gaitasuna, euskararen erabilera sustatzeko strategiaren komunikazioa eta hizkuntza klausulak.

Indarguneak

- Hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak onetsita daude eta langileei jakinarazten zaizkie.
- Lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila altua izatea lortu da.
- Plan estrategikoaren eta kudeaketa planen informazioa foru erakundeko zuzendariei zabaltzen zaie.
- Unitate batzuetan lantalde teknikoak eratu izan dira kudeaketa planetako ekintzak aurrera eramateko.
- AFAko arduradun politiko gehienek foru erakundearen euskara sustatzeko plana babesten dute.
- Kudeaketa ardatzeko arloetan langileen arloak du egoera onena.

Erronka nagusiak

Kudeaketa ardatzerako, AFAn erroka nagusia izango da euskararen erabilera sustatzeko prozesua foru erakundearen kudeaketa sisteman integratzeko urrats berriak egitea. Horretarako, zuzendaritza organoetako partaideen adostasuna, inplikazioa eta elkarlana lortzeko lan egingo da, hizkuntza normalizazioaren ardura har dezaten, plan estrategikoa garatu eta haren jarraipena egiteko.

KEMEN adierazle sistemako parametroetan, kudeaketa ardatzean AFAn aurreikusitako egoera % 50,0 da; % 27,1etik % 50,0ra, 22,9 puntuko igoera lortu nahi da VII. plangintzaldiaren amaierarako. Eta helburu hori lortzeko lehentasuna izango duten arloak izango dira euskararen kudeaketa orokorra, lidergoa eta hizkuntza klausulak. Kudeaketa ardatzeko 6 arloetako bakoitzean atzemandako zer hobetuak hurrengo orrialdeetan daude jasotak.



7a1| [1.0.1] arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

11. taula. [1.0.1] arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
1.0.1. arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	55,0	65,0	70,6
[1.0.1.1] adierazlea: Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	25,0	50,0	28,2
[1.0.1.2] adierazlea: Plan estrategiko, kudeaketa plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	75,0	75,0	42,4

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023

Egoera

- 63/2018 Foru Dekretuaren bidez, AFAko Administrazio Orokorrean Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. plangintzaldiko plana dago indarrean, plangintzaldi berrikoa onetsi bitartean, eta plan hori gauzatzeko kudeaketa lanak egiten ditu AFAko Euskara Zerbitzuak.
- Hizkuntza kudeaketa oraindik ez dago foru erakundearen kudeaketan txertatuta.
- Ez dago foru erakunde arduradun politiko eta teknikoentzat zein langileentzat erreferentea izan eta haien parte hartzea, gidaritza eta ekimena bideratzeko egitura finkorik. Ez da egiten foru erakunde euskara planaren kudeaketa sistematikorik eta zeharkakorik. Euskara planaren kudeaketa eta jarraipena egitearen ardura, hein handi batean, Euskara Zerbitzuaren esku dago.
- Euskara Zerbitzuak hizkuntza irizpideen jarraipena egiten du, eraginkortasuna ebaluatu eta egokitzapenak egiteko.

Indarguneak

- Hizkuntza ofizialen erabileraren kudeaketa txertatzea helburu duten ekintzak egiten dira foru erakundearen kudeaketan; besteak beste, euskara plana eta bere kudeaketa planen komunikazioa egiten zaie AFAko zuzendariei, baita kudeaketa planetako ekintzak aurrera eramateko konpromisoa eskatu ere.
- Plan estrategikoa ebaluatzeaz gain, kudeaketa planen jarraipena egiten da, ekintzen eraginkortasuna ezagutu eta egokitzapenak egiteko.
- Lantalde teknikoak eratu izan dira, kudeaketa planetako ekintzak zuzendaritzetara zabaltzeko eta hizkuntzen kudeaketa egokia egiteko beharrak aztertu eta baliabideak eskaintzeko.



Zer hobetuak

- Lortu beharrekoa da VII. plangintzaldiko plan estrategikoa foru erakundeko arduradun politiko eta teknikoentzat zein langileentzat erreferente izatea eta haien parte hartzea.
- Arduradun politikoaren eta teknikoaren gidaritza lana sustatzea foru erakundearen hizkuntza normalizaziorako prozesuan.
- Bi urterik behingo kudeaketa planetako ekintzen gauzatzea eta eraginkortasuna hobetzea.
- Foru erakundearen hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideen komunikazioa eta betetze maila hobetzea.

7a2] [1.0.2] arloa: LIDERGOA

12. taula. [1.0.2] arloa: LIDERGOA

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
1.0.2 arloa: LIDERGOA	4,2	33,3	88,2
[1.0.2.4] adierazlea: Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	8,3	41,7	44,1
[1.0.2.5] adierazlea: Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa planetan finkatutako helburuak bete daitezzen.	0,0	25,0	44,1

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023

Egoera

- Orain arte, foru erakundeko arduradun politiko zein teknikoaren parte hartzea baxua izan da eta Euskara Zerbitzuak edo Funtzio Publikoko zuzendariak bidalitako informazioa jasotzera mugatu izan da. Urratsez urrats, arduradun politiko eta teknikoek elkarlan bide berriak egin beharra aurreikusten da, hizkuntza ofizialen erabileraren kudeaketa gidatzera eta lideratzera irits daitezzen.
- Unitateburuen lan hizkuntza gaztelania izateak zaildu egiten du unitate horietan euskaraz dakiten langileek euskara erabiltzen hasteko urratsa egitea.



Indarguneak

- Arduradun politikoen aldetik, badago aldekotasuna AFAko euskararen normalizazio prozesuarekin jarraitu eta urrats berriak egiteko. Aurreko legegaldiaren amaieran, inkesta bat egin zitzaion AFAko arduradun politikoei; batzuk ez dira egungo legealdikoak, hala ere, erreferentzia modura, hona hemen zenbait datu: % 60k AFAko euskara planaren balorazioari positiboa edo oso positiboa iritzi diote; % 60k euskararen sustapenerako aldekoak diren jarraibideak ematen dituztela erantzun zuten.
- Bestalde, inkesta bidez jaso dira AFAko langileen datuak, erantzun maila oso altuarekin. Zuzendaritza bakoitzaren hizkuntza egoera zein den eta zein aurrerabide proposatu daitezkeen aztertzeko baliatuko da informazio hori, tokian tokiko beharrei erantzuteko eta normalizazio neurri mailakatuak proposatzeko.

Zer hobetuak

- Arduradun politiko eta teknikoekin euskara planaren jarraipena modu sistematizatuagoan egitea.
- Arduradun politiko eta teknikoek lider lanak egitea, hizkuntza normalizaziorako prozesua foru erakundearen kudeaketan gero eta txertatuagoa egon dadin.



7a3] [1.0.3] arloa: LANGILEAK

13. taula. [1.0.3] arloa: LANGILEAK.

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
1.0.3 arloa: LANGILEAK	52,7	63,3	70,6
[1.0.3.7] adierazlea: Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa plan eta hizkuntza irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten	41,0	57,5	21,2
[1.0.3.8] adierazlea: Langileek dagozkien hizkuntza irizpideak betetzen dituzte	67,1	75,0	28,2
[1.0.3.9] adierazlea: Langileek betetzen dituzte kudeaketa planean adostutako eginkizunak	57,6	65,0	14,1
[1.0.3.10] adierazlea: Langileek parte hartzen dute kudeaketa planean zehaztutako sustapen ekintzetan	20,1	30,0	7,1
[1.0.3.11] adierazlea: Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilera erakundean duen bilakaeraz	33,5	43,0	

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

Egoera

- Langileei foru erakundeko euskara planaren eta hizkuntza irizpideen informazioa bidaltzen zaie. Zabalkunde hori mezu bidez egiten da.
- Langileen % 12k dakite ongi bere lanpostuari dagozkien hizkuntza irizpideak zein diren, % 49k nahiko ongi, eta gainerakoek, gutxi edo batere ez. Betetzen ote dituzten galdetuta, % 20k beti edo ia beti erantzun dute, % 36k gehienetan eta % 22k erdizka.
- Langileen parte hartzea euskararen sustapenerako antolatutako ekintzetan: 10etik 6k ez dute inoiz parte hartzen edo oso gutxitan.
- Foru erakundean euskararen azken urteetako bilakaera: langileen % 42k ez dute informaziorik, % 33k positiboki baloratu dute eta % 12k negatiboki.
- Hainbat langilek uste du oso herritar gutxi eskatzen dutela, foru erakundearekin komunikatzean, zerbitzua euskaraz ematea, eta horrek euskararen erabilera sustatzeko beharrik ez sentitzera eramaten ditu langile asko.



Indarguneak

- Langileek barneratua daukate herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar direla, eta beraz, hala nahi duenari zerbitzua euskaraz emateko neurriak hartu beharra dagoela.

Zer hobetuak

- Ahalik eta modurik eraginkorrean langileak informatu, haien ekarpenak jaso eta jarraibideak ematea plan estrategikoari, kudeaketa planei eta foru erakundeak bete beharreko hizkuntza irizpideei buruz; finean, langileen parte hartze eta inplikazio handiagoa lortu nahi da foru erakundearen hizkuntza normalizazio prozesuan urrats berriak egiteko.



[1.0.4] arloa: HIZKUNTZA GAITASUNA

14. taula. [1.0.4] arloa: HIZKUNTZA GAITASUNA

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)
1.0.4. arloa: HIZKUNTZA GAITASUNA	37,6	45,0
[1.0.4.12] adierazlea: Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	43,9	50,0
[1.0.4.13] adierazlea: Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	38,9	45,0
[1.0.4.14] adierazlea: Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	30,0	40,0

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

Egoera

- Inkesta bidez neurtu da AFAko langileen hizkuntza gaitasuna eta hauek dira emaitzak:
 - Ahoz, lanpostuaren funtzioak euskaraz oso ondo edo ondo betetzeko gaitasuna dute % 43,9k (%11,3k oso ondo eta % 32,6k ondo); langileen beste multzo zabal bat badago, % 27,5koa, gaitasun apalagoarekin, euskaraz aritzeko zailtasunak dituela erantzun duena.
 - Idatziz, lanpostuaren funtzioak euskaraz oso ondo edo ondo betetzeko gaitasuna zertxobait baxuagoa da: % 39 dira gai bere lana idatziz oso ondo (% 7,9) edo ondo (% 31,1) egiteko, eta zailtasunekin, % 32,2.
- Arduradun politikoek % 25 inguru da gai ahozko harremanetan euskaraz jarduteko eta % 30 inguru idatziz.



Indarguneak

- AFAko langileen hizkuntza gaitasuna Arabako herritarren batez bestekoaren gainetik dago eta azken urteetako bilakaera positiboa izan da: 3. eta 4. hizkuntza eskakizuna dagokien lanpostuetan, gaitasuna egiaztatutako langileak 149 ziren 2018an eta 202 dira gaur egun.
- Langileei hizkuntza trebakuntzarako saioak eta baliabideak eskaintzen zaizkie:
 - Hizkuntza trebakuntzarako aukerari dagokionez, ALET programaren deialdian 103 langilek eman zuten izena 2022-2023 ikasturtean.
 - Foru erakundeko *Euskara lanean* atalean, hizkuntza baliabideak dituzte langileek eskura (hiztegiak, gramatikako azalpenak...).
 - 3. eta 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten langileei itzultzaile automatikoa egoki erabiltzeko formazio saioak eskaintzen zaizkie.

Zer hobetuak

- Ahoz gutxieneko euskara maila duten arduradun politikoei hizkuntza trebakuntza jasotzea eta bere lan funtzioetan euskara gehiago erabili dezaten sustatzea.
- Lan funtzioak euskaraz egiteko behar eta aukera gehien dauden lanpostuetako langileen hizkuntza trebakuntza indartzea eta erabilera sustatzea.



[1.0.5] arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

15. taula. [1.0.5] arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
1.0.5 arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	25,0	65,3	45,0
[1.0.5.15] adierazlea: Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldee	25,0	75,0	31,5
[1.0.5.16] adierazlea: Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatze ekimenetan parte hartzen du.	25,0	42,5	13,5

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023

Egoera:

- Foru erakundeak ez du euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia herritarrei komunikatzeko berriazko lan lerrorik, baina honako hauek egiten ditu: batetik, ahozko erabilera bultzatzeko, eraikin eta jendaurreko lanpostuetan *Euskara zure aukera* leloa duten euskarri desberdinak (pegatinak, kartelak...) jarri ditu; bestetik, idatzizko erabilera bultzatzeko, mezu elektronikoetan *Nahi baduzu, hemendik aurrera euskaraz egingo dugu* esaldia txertatuta daukate hainbat langilek.
- Foru erakundeak euskararen normalizazioarekin zerikusia duten ekimenetan (ikastaro, jardunaldi, mintegi, topaketa...) parte hartzen du, eta haiek baliagarriak dira euskararen normalizazioaren prozesuko beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatze.

Indarguneak:

- Herritarrek euskaraz egin dezaten animatzeko bidea irekita dauka foru erakundeak.

Zer hobetuak:

- Hizkuntza egoera onenean dauden unitateekin ohiko harremana duten interes taldeei jakinaraztea haiekin euskaraz jarduteko dituzten aukerak.
- *Euskara zure aukera* eta *Nahi baduzu, hemendik aurrera euskaraz egingo dugu* ekimenei jarraipena ematea.
- Beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatze ekimen gehiagotan parte hartzea.



[1.0.6] arloa: HIZKUNTZA KLAUSULAK

16. taula. [1.0.6] arloa: HIZKUNTZA KLAUSULAK

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
1.0.6 arloa: HIZKUNTZA KLAUSULAK	3,8	31,3	70,6
[1.0.6.17] adierazlea: Kontratueta hizkuntza klausulak txertatzen dira	25,0	50,0	10,6
[1.0.6.18] adierazlea: Dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza klausulak txertatzen dira	0,0	50,0	7,1
[1.0.6.19] adierazlea: Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza klausulen betetze mailari	0,0	25,0	31,8
[1.0.6.20] adierazlea: Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza klausulen betetze mailari	0,0	25,0	21,2

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

Egoera

- Hizkuntza klausulei buruzko formazio saioak antolatu izan dira eta baita argibideak eman ere, AFAko kontratu agiriak idazten dituztenentzat. Teknikarientzako gida praktikoak ere landu ditu AFAko Euskara Zerbitzuak.
- Kultura eta Kirol Sailak bideratzen dituen dirulaguntza deialdietan hizkuntza klausulak txertatzeko urratsak egin dira.
- Hala eta guztiz, AFAREN kontratu, dirulaguntza eta hitzarmeneta, baxua da hizkuntza klausulen txertatze maila. Dirulaguntza eta hitzarmen gehienek ez dute hizkuntza klausularik eta foru erakundeak egiten dituen kontratuen erdiek baino gutxiagok daukate txertatuta hizkuntza klausulak.
- Ez da jarraipen lan sistematikorik egiten hizkuntza klausulak ezarriak dituzten kontratueta hizkuntza irizpideak betetzen ote diren egiaztatzeko. Egin izan denetan, ikusi da hizkuntza irizpideetan ezarritakoa baino zehaztasun maila txikiagoarekin ezartzen direla.



Indarguneak

- *Las cláusulas lingüísticas en la contratación pública* izeneko saioa antolatu zuen Euskara Zerbitzuak idazkaritza teknikoetako buruentzat eta kontratuen agiriekin lan egiten duten bertako teknikarientzat.
- Argibide batzuk idatzi dira zehazteko, batetik, zein kasutan sartu behar diren hizkuntza klausulak kontratuen agirietan, eta, bestetik, sartu behar direnetan zeintzuk izan behar duten. Langileen artean zabaldu dira.
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, AFAko Euskararen Foru Zerbitzuak udaletako teknikarientzako mintegi bat antolatu zuen kontratu administratiboetako hizkuntza klausulei buruz. Mintegi horretan Euskara Zerbitzuak hartu zuen parte.
- Bide bat egiten hasia dago AFA arlo honetan, eta garrantzitsua ikusten du hizkuntza klausulak ezartzeko urratsak egiten jarraitzea.

Zer hobetuak

- Lehenetasunezko jotzen diren AFaren kontratu, dirulaguntza eta hitzarmen gehiagotan hizkuntza klausulak pixkanaka sartzeari. Lehenetasunezko kontratu, dirulaguntza eta hitzarmen izango dira herritarrei zuzendutako zerbitzuetan edo jardueretan hizkuntza erabilera garrantzitsua dutenak.
- Hizkuntza klausulen betetze mailaren jarraipena egiteko prozedura ezartzea.

7b) [2] ardatza: **ERABILERA**

17. taula. [2] ardatza: ERABILERA

KEMEN ardatza	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
[2] ardatza: ERABILERA	35,4	46,9	700,0

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

KEMEN adierazle sistemaren bigarren ardatza da erabilera eta bi eremu biltzen ditu, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza.

Egoera

- KEMEN adierazle sistemari jarraikiz, erabilera ardatzean eta dagozkion bi eremuetan lortutako abiapuntuko egoeraren ehunekoak ondorengoak dira, Siadecok 2023an egindako ebaluazio ikerketaren arabera:

2. ardatza - erabilera:

- Abiapuntuko egoera: % 35,4

2.1 eremua - zerbitzu hizkuntza:

- Abiapuntuko egoera: % 65,8

2.2 eremua - lan hizkuntza:

- Abiapuntuko egoera: % 22,4

- Zerbitzu hizkuntzaren eta lan hizkuntzaren arteko aldea 43,4 puntukoa da. Hurrengo ataletan jaso da eremu bakoitzean aztertutako arloetako egoera zein den.
- AFAn langileek euskaraz erantzuten dute herritarrek euskaraz egindako ahozko eskaeren % 68.
- Nahiz eta langileen % 43,9k aitortu lan funtzioak ahoz euskaraz ondo betetzeko gaitasuna dutela, gaztelaniaren erabilera nagusitzen da administrazio unitate eta zuzendaritza gehienetan.



Indarguneak

- Foru erakundearen irudian eta herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera bermatzeko hizkuntza irizpideak onetsita daude. Errotulazioan, oro har, betetzen dira hizkuntza irizpide horiek; herritarrekiko harremanetan, aldiz, gutxiago.
- Idatzizko barne harremanetan eragiteko, gomendioak egin eta baliabideak eskaintzea lagungarria dela ikusi da.
- Kanpo harremanetan, euskararen erabilera handiagoa da sektore publikoko erakundeekin enpresa pribatuekin baino.
- Hizkuntza trebakuntzarako saioen balorazioak oso onak dira, eta saio horietan parte hartzen duten langileekin lor daiteke erabilerarekiko urrats berriak egitea.

Erronka nagusiak

- Lehenetasun osoa duen VII. plangintzaldirako helburuetako bat da foru erakundera euskaraz zuzentzen diren herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea.
- VII. plangintzaldiari ezartzen zaizkion helburuetan, lehenetasuna izango duten erabilera ardatzeko arlo inportanteenak hiru hauek izango dira: herritarrekiko harremanak, kanpo harremanak eta prestakuntza.



7b1| [2.1] eremua: ZERBITZU HIZKUNTZA

18. taula. [2] eremua: ZERBITZU HIZKUNTZA

KEMEN eremua	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
[2.1] eremua: ZERBITZU HIZKUNTZA	65,8	86,8	210,0

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

7b1.1| [2.1.1] arloa: IRUDIA

19. taula. [2.1.1] arloa: IRUDIA

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
2.1.1. arloa: IRUDIA	91,0	94,0	42,0
[2.1.1.21] adierazlea: Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak) eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude	100,0	100,0	8,4
[2.1.1.22] adierazlea: Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	100,0	100,0	8,4
[2.1.1.23] adierazlea: Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	70,0	80,0	12,6
[2.1.1.24] adierazlea: Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	100,0	100,0	12,6

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

Egoera

- AFako egoitzetako irudi elementuetan bermatua dago euskararen erabilera.
- Oso orokortua dago (% 95etik gora) euskararen eta gaztelaniaren aldi bereko erabilera foru erakundearen hizkuntza paisaiaren elementu gehienetan (errotulazioan, irudi korporatiboan, webguneetan eta papereko argitalpenetan).
- Agerraldi instituzionaletan informazioaren % 70 inguru ematen da euskaraz.



Indarguneak

- Hizkuntza irizpideak zehaztuta daude eta haien jarraipena egiten da, arlo honi dagozkion elementu hauetan:
 - Foru erakundearen errotulazioko elementuetan eta ikus-entzunezkoetan.
 - Jendaurreko ekitaldi publikoetan.
 - Pentsaurrekoetan.
 - Herritarrei begira antolatutako ikastaro eta jardueretan.
 - Webguneetan: nola dauden eta euskarazko bertsioak zenbat erabiltzen diren.
 - Sare sozialetan.

Zer hobetuak

- Euskararen erabilera areagotzea foru erakundearen agerraldi publikoetan (aurkezpenak, prentsaurrekoak...).



7b1.2] [2.1.2] arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK

20. taula. [2.1.2] arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
2.1.2.arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK	59,4	85,0	168,0
[2.1.2.25] adierazlea: Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz, herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	34,7	50,0	33,6
[2.1.2.26] adierazlea: Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	68,1	100,0	42,0
[2.1.2.27] adierazlea: Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	71,4	75,0	33,6
[2.1.2.28] adierazlea: Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	49,0	100,0	25,2
[2.1.2.29] adierazlea: Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	69,3	100,0	33,6

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

Egoera

- Langilea harrera postuan egon ala ez, alde txikia dago euskararen lehen agurreko erabileran: harrera postuetako langileen erabilera % 38 da eta harrera postuetan lan egiten ez dutenena %34. Euskararen erabileraren indize orokorra lehen agurrean % 34,7 da.
- Langileen lehen hitzaren ondoren, herritarren euskararen erabileraren indize orokorra % 18 da: harrera postuetako langileek artatuak diren herritarren kasuan % 20 eta harrera postuetakoak ez diren langileek artatzen dituzten herritarren kasuan % 17.
- Herritarren euskarazko eskaerei langileek oro har emandako erantzunen hizkuntzari erreparaturaz, % 68,1 da euskararen erabilera: harrera postuetako langileen artean % 72 eta harrera postuetakoak ez diren langileena % 67.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

- Langile guztiei galdetu zaie zein jokabide ote duten herritarra euskaraz zuzentzen zaienean. % 45ek adierazi dute gai direla herritarra euskaraz artatzeko. % 18k erantzun dute herritarrari euskaraz hitz egiteko eskatzen diotela nahiz eta berak gaztelaniaz erantzun. Ia %15ek euskaraz dakien beste lankide bati eskatzen diote herritarra artatzeko eta langileen % 9k esan dute gaztelaniaz hitz egiteko eskatzen dietela herritar eskaldunei.
- Elkarrizketa bere osotasunean hartuta, altuagoa da euskararen erabilera harrera postuetako langile direnen artean: euskararen batez besteko erabilera % 24 da eta harrera postuetakoak ez diren langileena % 20.
- Foru erakundeak herritarrei lehen komunikazioan bidalitako dokumentuei dagokienez, % 51 gaztelaniaz bidaltzen dira, % 47 ele bietan eta % 2 euskaraz.
- Herritarrek Arabako Foru Aldundiari euskaraz aurkeztutako idatzien erdiak inguru (% 45) euskaraz erantzuten dira eta laurden bat (% 25) ele bietan. Herritarrak euskaraz aurkeztutako idatzien % 31 gaztelaniaz erantzuten da.

Indarguneak

- Jendaurreko lanpostuetako langileen euskara maila hobea da eta badago aukera herritarrekiko harremanean euskararen erabilera sustatzeko, bereziki herritarrarengana zuzentzean (lehen hitza) eta euskarazko eskaerei erantzutean. AFAko langileen % 45 gai da herritarrarekin euskaraz aritzeko.
- Hiru eginbide jorratu izan dira orain arte:
 - Datuak jaso eta aztertu; herritarrek zer hizkuntzatan eskatzen duten eta nola erantzuten zaien.
 - Hizkuntza kexen jarraipena egin (Elebide, Behatokia...) eta ekintza zuzentzaileak ezarri.
 - Herritarrak euskara erabiltzera bultzatzeko ekimenak egin (*Euskara zure aukera...*).

Zer hobetuak

- Herritarrekiko harremanean, langileak herritarrarengana zuzentzen direnean, langileen euskararen erabilera maila altuagoa izatea.
- Herritarrek ahoz euskaraz egindako eskaera guztiei euskaraz erantzutea.
- Herritarrei lehenengoz bidaltzen zaizkien idazkietan euskararen erabilera bermatzea.
- Herritarrek foru erakundeari euskaraz aurkeztutako idatzi guztiei euskaraz erantzutea.



7b2] [2.2] eremua: LAN HIZKUNTZA

21. taula. [2.2] eremua: LAN HIZKUNTZA

KEMEN eremua	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
[2.2] eremua: LAN HIZKUNTZA	22,4	29,7	490,0

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

7b2.1] [2.2.1] arloa: BARNE HARREMANAK

22. taula. [2.2.1] arloa: BARNE HARREMANAK

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
2.2.1.arloa: BARNE HARREMANAK	17,9	22,0	147,0
[2.2.1.32] adierazlea: Lan bilerak euskaraz egiten dira	9,0	12,0	42,0
[2.2.1.33] adierazlea: Lankideen arteko ahozko lan harremana euskaraz izaten da	15,6	20,0	52,5
[2.2.1.34] adierazlea: Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	14,6	20,0	
[2.2.1.35] adierazlea: Erakunde barruko idatzizko lan komunikazioak euskaraz egiten dira	25,1	30,0	42,0
[2.2.1.38] adierazlea: Lanari lotutako hizkuntza paisaia euskaraz dago	35,9	40,0	10,5

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023.



Egoera

- Foru erakundeko barne harremanetan ahozko euskararen erabilera idatzizko euskararen erabilera baino apalagoa da.

Indarguneak

- Euskara planaren 2022ko kudeaketa planean barne harremanetan eta bereziki foru erakunde barneko hizkuntza paisaian euskararen erabilera indartzeko aurreikusitako ekintza gehienak burutu dira. Ekintza horiek dira:
 - Eraikinetako noizbehinkako oharren zein makinetak errotulazioaren hizkuntza egoeraren jarraipena egin eta neurri zuzentzaileak hartu.
 - Euskaraz dakiten langileak identifikatzeko, *eu* adierazgarria ipini posta elektronikoetan eta telefono gidan.
 - Intraneteko edukiak euskaraz daudela bermatu.
 - Atal jakin batzuetan langileen hizkuntza prestakuntzarako beharrak zein diren aztertu.
 - ALETeko saioetan aritutako langileen konpromisoak bilatu, lankideen arteko idatzizko komunikazioetan euskara erabiltzeko.
 - Langileei bidaltzen zaizkien zabalpen handiko mezu, jakinarazpen eta dokumentuak euskaraz ere bidaltzen direla ziurtatu.
 - *Euskaraldia* ekimena aurrera eramateko urratsak egin foru erakundeko langileekin.

Zer hobetuak

- Langileen arteko ahozko lan harremanetan euskararen erabilera sustatzea.
- Foru erakundeak langileei eskainitako prestakuntza ikastaroetan euskarazko eskaintza areagotzea.
- Lanpostuko zereginak euskaraz betetzeko trebakuntza saio motak ugaritzea.



7b2.2] [2.2.2] arloa: KANPO HARREMANAK

23. taula. [2.2.2] arloa: KANPO HARREMANAK

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
2.2.2. arloa: KANPO HARREMANAK	30,4	38,5	98,0
[2.2.2.39] adierazlea: Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	24,8	35,0	29,4
[2.2.2.40] adierazlea: Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	43,8	55,0	39,2
[2.2.2.41] adierazlea: Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	12,8	15,0	14,7
[2.2.2.42] adierazlea: Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	23,4	25,0	14,7

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

Egoera

- Langileei egindako inkesta bidez jaso da zein hizkuntza ofizialetan aritu ohi diren sektore publikoko erakundeekin ahozko harremanak izatean eta zein hizkuntzatan bidaltzen diren idatziak erakunde publiko horietara; datuak hauek dira:
 - Ahozko harremanei dagokienez, % 24,8 izaten da euskaraz.
 - Bidaltzen diren dokumentu edo agirien % 56 gaztelaniaz bidaltzen da, % 37 ele bietan eta % 7 euskaraz.
- Era berean, neurtu da langileak zein hizkuntza ofizialetan aritu ohi diren enpresa pribatuekin ahozko eta idatzizko harremanak izatean (hornitzaileak, finantza erakundeak, erakunde kolaboratzaileak...). Datuak hauek dira:
 - Ahozko harremanetako hizkuntzari dagokionez, % 12,8 izaten da euskaraz.
 - Bidaltzen diren dokumentu edo agirien % 77 gaztelaniaz bidaltzen da, % 18 ele bietan eta % 6 euskaraz.

Indarguneak

- Idatziz zein ahoz, euskararen erabileraren datuak hobeak dira sektore publikoko beste erakundeekiko harremanetan, eta berariazko esku hartzeak eginda, oraindik ere euskara gehiago erabiltzeko aukera garbiak dauden harreman motak dira; bereziki idatziz egiten diren komunikazioetan lor daiteke aurrerabiderik gehien.



Zer hobetuak

- Erakunde publikoetara AFAK bidaltzen dituen dokumentuetan euskararen erabilera bermatzea, neurri handiagoan.
- AFAK erakunde publikoekin dituen ahozko harremanak areagotzea.
- Sektore pribatuko entitateetara bidaltzen diren lehen komunikazio idatziak ele bietan daudela ziurtatzea.

7b2.3] [2.2.3] arloa: PRESTAKUNTZA

24. taula. [2.2.3] arloa: PRESTAKUNTZA

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
2.2.3. arloa: PRESTAKUNTZA	20,8	36,3	73,5
[2.2.3.43] adierazlea: Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei	29,0	35,0	25,7
[2.2.3.44] adierazlea: Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	12,7	20,0	33,1
[2.2.3.45] adierazlea: Hizkuntza trebakuntza eskaintzen zaie langileei	25,0	75,0	14,7

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

Egoera

- Langileei eskaintzen zaizkien prestakuntza ikastaroetan kudeaketarako erabilitako dokumentazioa % 50 ele bietan dago, % 30 euskaraz eta % 20 gaztelaniaz. Foru erakundeak berak antolatzen duen prestakuntza eskaintzaz gain, kanpoko beste erakunde batek (IVAP, Merkataritza Ganbera edota UPV/EHU, esaterako) egindako eskaintza ere kontuan hartu da.
- Prestakuntza saioetako hizkuntza: langileen % 9k euskaraz neurri handiagoan edo euskara hutsean jaso dute formazioa; % 6k euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, eta gainerakoek (% 85) gaztelania hutsean edo gaztelaniaz nagusiki.
- Prestakuntza euskaraz egiteko langileei egindako eskaintzaren datua % 29 da, eta langileen % 12,7k egin du euskaraz.
- Hizkuntza trebakuntza: lanpostuko zereginetan euskara erabili nahi duten langileentzako hizkuntza trebakuntzarako ikastaroen eskaintza egiten du foru erakundeak. Eskaintza hori orokorra da, langile bakoitzaren beharrak gorabehera.



Indarguneak

- Langile askok hartzen dute parte hizkuntza trebakuntzarako saioetan (ALET deialdia), 103 langilek 2022-2023ko deialdian.
- Hizkuntza trebakuntzarako saioen balorazioak oso onak dira eta saio horietan parte hartzen duten langileekin lor daiteke erabilerarekiko urrats berriak egitea.
- 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileei itzultzaile automatikoa egoki erabiltzeko formazioa eskaini zaie; 85 langilek hartu dute parte eta balorazio oso ona egin da antolatutako saioei buruz.

Zer hobetuak

- Langileen hizkuntza trebakuntzarako programa antolatzen jarraitzea eta euskararen erabilerara jauzi egiteko ekimenak indartzea.
- Langileentzat AFak antolatutako formakuntza saio orokorrak euskaraz egin ahal izateko aukera sustatzea.
- Lanpostuko zereginak euskaraz betetzeko trebakuntza saio motak ugaritzea.

7b2.4] [2.2.4] arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK

25. taula. [2.2.4] arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
2.2.4 arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK	14,2	20,0	73,5
[2.2.4.47] adierazlea: Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak	14,2	20,0	73,5

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

Egoera

- VI. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioa egin denean hau neurtu da: euskaraz erabilgarri dauden aplikazio informatikoetatik zenbat diren langileek euskaraz erabiltzen dituztenak. Emaitza hau izan da: langileen % 14,2k euskaraz erabiltzen dituzte (euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, euskaraz gehiagotan eta beti/ia beti euskaraz); % 9k gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, eta gainerakoek beti gaztelaniaz.



Indarguneak

- Aplikazio informatikoen euskarazko bertsioak instalatzeko eta euskaraz instalatutakoak gehiago erabiltzeko ekintzak bideratu ditu Euskara Zerbitzuak.

Zer hobetuak

- Euskarazko baliabide informatikoen ezarpena eta erabilera sustatzea, batez ere, lan funtzioak euskaraz betetzeko gaitasuna dagoen lanpostuetan.

7b2.5| [2.2.5] arloa: SORTZE HIZKUNTZA

26. taula. [2.2.5] arloa: SORTZE HIZKUNTZA

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
2.2.5 arloa: SORTZE HIZKUNTZA	28,3	35,0	98,0
[2.2.5.48] adierazlea: Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak	28,3	35,0	98,0

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023

Egoera

- Langileen % 42k izaten dute lanean dokumentuak sortu beharra.
- Langileei galdetuta euskaraz edo ele bietan zabaldu behar diren dokumentuak nola sortzen dituzten, % 58k gaztelaniaz sortzen dituzte baina euskarazko bertsioaz ere arduratzen dira (itzultzaile automatikoa pasa eta euskarazko testua gainbegiratzen dute). % 25ek gaztelaniaz sortzen dituzte dokumentu horiek, euskarazko testuaren ardura zuzenik hartu gabe (itzultzaile automatikoa erabili bai baina ez dute testua gainbegiratzen, edo itzultzera bidaltzen dute, edo lankide batek itzultzen du). Langileen % 12k nagusiki euskaraz sortzen dituzte eta % 5ek euskara hutsean.

Indarguneak

- Trebakuntza saioetan parte hartzen duten langileekin sortze hizkuntza euskara izateko lanketa berezi bat egin daiteke.

Zer hobetuak

- Idatzizko lanerako sortze hizkuntza euskara izan dadin sustatzea, hizkuntza gaitasun egokia izan eta lana euskaraz egiteko behar handiena eta aukera gehien duten langileen artean.



7c| Foru erakundearen adierazle orokorra

27. taula. GUZTIRA

KEMEN adierazlea	Hasierako egoera (%)	Aurreikusitako egoera (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
GUZTIRA	32,9	47,8	1.000,0

Iturriak: Arabako Foru Aldundiko solaskideak, 2023; Siadeco – langileen inkesta, 2023



8| Antolakuntza egiturak

VII. plangintzaldiko plan estrategikoa garatzeko eta inplementatzeko honako antolakuntza egitura hauek eratuko dira:

8a| Plan Estrategikoaren Koordinazio Batzardea

Plan Estrategikoaren Koordinazio Batzardea eratuko da. Batzarde hori Funtzio Publikoko zuzendariak, beste zuzendaritzetako arduradun politikoeak, idazkaritza teknikoetako zerbitzuberuek (idazkaritza teknikorik ez dagoenetan, haren zereginen ardura duen unitateburuak) eta Euskara Zerbitzuak osatuko dute. Haren zereginak izango dira foru erakundearen erabilera normalizatzeko jarraitu beharreko estrategiak zehaztea eta plan estrategikoaren eta kudeaketa planen koordinazio eta jarraipen lanak egitea, plan estrategikoaren ezarritako helburuak lortzeko eta kudeaketa planetan planifikatutako normalizazio ekintzak aurrera eramate aldera adostasunak bilatzeko. Batzarde horrek parte hartzaile guztien konpromisoa areagotzea ekarriko du.

Horiek horrela, zuzendariak eta idazkaritza teknikoetako zerbitzuberuek (idazkaritza teknikorik ez dagoenetan, haren zereginen ardura duen unitateburuak) konpromisoak hartuko dituzte euskararen sustapenerako, hau da, AFaren hizkuntza irizpideak betetzeko eta euskara planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, azken xedea baita foru erakundeko arduradun politiko eta teknikoek, progresiboki, AFAn hizkuntza ofizialaren erabilera kudeaketa gidatzea eta lideratzea.

8b| Euskara Batzardea

Euskara Batzardea langileen ordezkariak, Funtzio Publikoko zuzendariak eta Euskara Zerbitzuak osatzen dute, eta egiteko hauek ditu: batetik, plan estrategikoaren eta kudeaketa planen jarraipena egitea, eta, bestetik, hizkuntza irizpideak betetzeko ekarpenak egitea eta haiek betetzerakoan izan litezkeen oztopoak detektatzea, aztertzea eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak proposatzea.



9| Baliabideak, komunikazioa eta ebaluazioa

9a| Baliabideak

Giza baliabideak eta baliabide materialak ezinbesteko tresnak dira aldundian Euskararen Erabilera Normalizatze Plan Estrategikoa gauzatzeko.

Giza baliabideei dagokienez, Euskara Zerbitzuko normalizazio taldea elkarlanean arituko da sailtako langileekin plangintzaldian zehar.

Bestalde, sailek eta zuzendaritzek beren aurrekontuetan behar diren partidak sortu edo egokituko dituzte, kudeaketa planetan jasotako ekintzak aurrera eramateko.

Euskara Zerbitzuak ere euskalduntzea, ALET programa, itzulpenak eta bestelakoak aurrera eramateko baliabideak izango ditu —eta hartarako behar diren kontratuak egingo ditu—, IVAPekiko hitzarmenaren bidez eskuratzen dituen gain.

9b| Komunikazioa

Berriarazo komunikazio eta informazio lana egingo da, aldundiko kide guztiak plana ezagutu dezaten eta plana gauzatzean parte senti daitezten.

Komunikazio prozesu horretan ezinbestekoa da arduradun politiko eta teknikoek inplikazioa; horretarako, planaren komunikazio eta informazio lana erraztuko dute eta hizkuntza irizpideak bete eta betearaziko dituzte, planaren oinarria baitira.

9c| Ebaluazioa

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hartarako diseinatutako SAREGIN aplikazioa erabiliko da planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Ebaluazioa plangintzaldiaren bukaeran (2027) egingo da, plan estrategikoan zehaztutako adierazleen arabera.

Plan Estrategikoaren Koordinazio Batzordeari eta Euskara Batzordeari emango zaie ebaluazio horren berri.


Plangintzaldian bi kudeaketa plan egingo dira eta ekintzak planifikatzeko eta gobernatzeko tresnak izango dira. Zehaztutako ekintzak baloratu eta, beharrezkoa bada, egokitu egingo dira hurrengo kudeaketa planari begira.




Eranskina:

KEMEN adierazleen taula bateratua


Ardatza	Arla	Kod.	Adierazlea	Kod.	Galdera	KEMEN puntuazioa		AFAR dagokiona		Hasterako egoera		Aurreikusitako egoera		Aldea		Oharrak	
						Ponderazioa (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa	Ponderazioa (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa	Erantzunaren balioa	Lortu-tako puntuazioa	%	Lortu behar direko puntuazioa	%	Puntuazioa		
1. ardatza. KUDEAKETA																	
1.0.1. arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA																	
		1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.				20,0	60,0	20,0	60,0	55,0	33,0	65,0	39,0	10,0	6,0	
		E1	Erakundeak badago plan estrategikoa eta kudeaketa planak kudeatzeko sistema egituraturik? Eta batezkoan, nolakoa da sistema hori?				40,0	24,0	40,0	24,0	25,0	6,0	50,0	12,1	25,0	6,0	
		1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.														
		E2	Jarraipen sistematikoa egiten zaie plan estrategiko, kudeaketa plan eta hizkuntza irizpideei?				60,0	36,0	60,0	36,0	75,0	27,0	75,0	27,0	0,0	0,0	
		1.0.2 arloa: LIDERGOA					25,0	75,0	25,0	75,0	4,2	3,1	33,3	25,0	29,2	21,9	
		1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoen parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.				35,0	26,3	50,0	37,5	8,3	3,1	41,7	15,6	33,3	12,5	
		E4.1.	Zerbat bilera egiten dugu urtean zehar erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa planen kudeaketarako?				11,7	8,8	16,7	12,5	0,0	0,0	50,0	6,3	50,0	6,3	
		E4.2.	Zerbaiterainokoa izan da arduradun politiko zein teknikoen berrantzezantzatutako bilera honetarako?				11,7	8,8	16,7	12,5	0,0	0,0	25,0	3,1	25,0	3,1	
		E4.3.	Zerbaiteraino hartzen dute parte erakundeak arduradun politiko zein teknikoen prozesu osoan; hau da, plan estrategiko eta kudeaketa planen diseinu, garapen eta jarraipenean?				11,7	8,8	16,7	12,5	25,0	3,1	50,0	6,3	25,0	3,1	




Ardatza	A-ria	Kod.	A-lerazlea	Kod.	Galdera	KEMEN puntutazioa		AF-Ari dagokiona		Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Aldea		Oharrak
						Ponde-razioa (%)	Lortu ahal den gehieneko puntua zkoa	Ponde-razioa (%)	Lortu ahal den gehieneko puntutazioa	Erantzunaren balioa	Lortu-tako puntua zkoa	%	Lortu behar-reko puntutazioa	%	Puntu-zioa	
	1.0.2.5			E5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa planetan finkatutako helburuak bete daitezzen. Plan estrategiko eta kudeaketa planen helburuak bete daitezzen, nolako proaktibotasunarekin jokatzen dute erakundeak arduradun politikoei eta teknikoek?	35,0	26,3	50,0	37,5	0,0	0,0	25,0	9,4	25,0	9,4	
	1.0.3 arloa: LANGILEAK															
	1.0.3.7			E7	Langileei ematen zaie erakundeak erakundearen informazioa, kudeaketa plan eta hizkuntza irizpideei buruzko informazioa? Langileei ematen zaie erakundearen informazioa, kudeaketa plan eta hizkuntza irizpideei buruzko informazioa?	30,0	18,0	30,0	18,0	41,0	7,4	57,5	10,4	16,5	3,0	
				L1	Argi duzu zure lan jarduneko harreman eta jardura bakoitzaren zer-nola erabili behar dituzun bi hizkuntza ofizialak; hau da, badakizu zein diren zure lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpideak?	15,0	9,0	15,0	9,0	25,0	2,3	50,0	4,5	25,0	2,3	
	1.0.3.8				Langileek dagozkien hizkuntza irizpideak betetzen dituzte.											
				L2	Betetzen dituzu zure lanpostuari dagozkion hizkuntza irizpide horiek?	40,0	24,0	40,0	24,0	67,1	16,1	75,0	18,0	7,9	1,9	
	1.0.3.9				Langileek betetzen dituzte kudeaketa planean adostutako eginkizunak.											
				L3	Zer neurritan betetzen dituzu erakundeak kudeaketa planean adostutako eta zure lan jardunari dagozkion hizkuntza eginkizunak?	20,0	12,0	20,0	12,0	57,6	6,9	65,0	7,8	7,4	0,9	
	1.0.3.10				Langileek parte hartzen dute kudeaketa planean zehaztutako sustapen ekintzetan.											
				L4	Zenbatetan parte hartu duzu azken hamabi hilabeteetan zure erakundeak euskararen erabilera sustatzeko antolatutako ekintzetan (monografitxoak, tailerrak, planen jarraipena, mintza saioak, <i>Euskaraldia</i> , <i>Eusle</i> metodologia, irabakuntza, plana bera gauzatzeke beren-beregi abiatutako ekintzak...)?	10,0	6,0	10,0	6,0	20,1	1,2	30,0	1,8	10,0	0,6	
	1.0.3.11				Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilera erakundearen erabilera sustatzeko egiten ari den lana?											
				L5.1.	Nola baloratzen duzu zure erakundeak euskararen erabilera sustatzeko egiten ari den lana?											
				L5.2.	Zergatik?					33,5		45,0		9,5		Ez da haziatzen



Ardatza	Arloa	Kod.	Aderazlea	Kod.	Galdiera	KEMEN		AFARI dagoena	Haserako egoera		Aurreikusitako egoera		Aldea		Oharrak
						Pende-razoa (%)	Lortu ahal den gehiengo puntua		Haserako puntuazioa	Lortu ahal den puntuazioa	%	Lortu ahal den puntuazioa	%	Puntuazioa	
1.0.4. arloa: HIZKUNTZA GAITASUNA															
	1.0.4.12	L6	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.		Nola ikusten duzu zure burua zure lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko, ahoz?				37,6		45,0		7,4		
	1.0.4.13	L7	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.		Nola ikusten duzu zure burua zure lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko, idatziz?				43,9		50,0		6,1		
	1.0.4.14	E8	Arduradun politikoa gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.		Erakundeko arduradun politikoa nagusietatik, zenbat dira gai postuaren funtzioak euskaraz betetzeko?				38,9		45,0		6,1		Ez da haztatzen
1.0.5. arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNKAZIOA															
	1.0.5.15	E9	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.		Erakundeak komunikatzen die herritarrei eta gainerako interes-taldeei euskararen erabilera sustatzeko abian duen estrategia?	15,0	45,0	15,0	25,0	11,3	65,3	29,4	40,3	18,1	
	1.0.5.16	E10.1	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeke ekimenetan parte hartzen du.		Zenbatetan parte hartu du erakundeak azken hamabi hilabeteetan beste hizkuntza esperientzia eta praktika on batzuk ezagutzeko eta euskararen normalizazioaren alorreko ezagutza jasozkeko antolatutako ekimenetan?	30,0	13,5	30,0	25,0	7,9	75,0	23,6	50,0	15,7	
	1.0.5.17	E10.2	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.		Zenbatetan parte hartu du erakundeak azken hamabi hilabeteetan bere hizkuntza esperientzia eta praktika onak ezagutzera emateko ekimenetan?	20,0	60,0	20,0	3,8	2,3	31,3	18,8	27,5	16,5	
1.0.6. arloa: HIZKUNTZA KLAUSULAK															
	1.0.6.17	E11	Kontratuaren hizkuntza klausulak txertatzen dira.		Zenbat kontratuk dituzte txertatuta hizkuntza klausulak?	15,0	9,0	15,0	25,0	2,3	50,0	4,5	25,0	2,3	
	1.0.6.18	E12	Dirulaguntza eta hitzarmenaren hizkuntza klausulak txertatzen dira.		Zenbat dirulaguntza eta hitzarmenak dituzte txertatuta hizkuntza klausulak?	10,0	6,0	10,0	0,0	0,0	50,0	3,0	50,0	3,0	
	1.0.6.19	E13	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuak hizkuntza klausulen beteetze mailari.		Jarraipen sistematikoa egiten al zaie kontratuaren jasotako hizkuntza klausulei?	45,0	27,0	45,0	0,0	0,0	25,0	6,8	25,0	6,8	
	1.0.6.20	E14	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenaren jasotako hizkuntza klausulak.		Jarraipen sistematikoa egiten al zaie dirulaguntza eta hitzarmenaren jasotako hizkuntza klausulak?	30,0	18,0	30,0	0,0	0,0	25,0	4,5	25,0	4,5	




Ardatza	Añoa	Kod.	Adierazlea	Kod.	Galdera	KEMEN puntuazioa		AFAn degokiona		Hasterako egoera		Aurrekustiatiko egoera		Aldea		Oharrak	
						Ponderazio (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa	Ponderazio (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa	Erantzunen balioa	Lortutako puntuazioa	%	Lortu behar den puntuazioa	%	Puntuazioa		
2. ardatza. ERABILERA																	
2.1. EREMIUA: ZERBITZU HIZKUNTZA (erabilaren % 30)																	
2.1.1. arloa: IRUDIA																	
2.1.1.21 Erakundearen errotulak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.																	
					E15.1	Zein hizkuntza ofizialean dago errotulazio finkoa?	20,0	210,0	30,0	210,0	65,8	138,1	86,8	182,3	21,0	44,2	
					E15.2	Zein hizkuntza ofizialean daude aldi baterako errotulak eta ikus-entzunezkoak?	20,0	42,0	20,0	42,0	91,0	38,2	94,0	39,5	3,0	1,3	
					2.1.1.22 Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.												
					E16.1.	Zein da hizkuntza ofizial bakoitzaren presentzia erakundearen argitalpenetan?	12,0										
					E16.2.	Zein da hizkuntza ofizial bakoitzaren presentzia erakundeak zabalduko iragarki eta publizitatean?	8,0										
					2.1.1.23 Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionalean.												
					E17	Informazioaren zer zati enan da euskaraz eta zer zati gaztelaniaz erakundearen agerraldiaren (aurkezpenak, prentsaurrekoak...)?	30,0										
					2.1.1.24 Erakundeak euskaraz dauka webgunea eta sare sozialak.												
					E18.1.	Zein hizkuntza ofizialean argitaratzen dira webguneko albisteak?	18,0										
					E18.2.	Zein hizkuntza ofizialean daude webgunean herritarren eskura dauden dokumentu ereduak?											
					E18.3.	Zein hizkuntza ofizialean daude webgunearen bidez herritarrek egin ahal dituzten tramiteak?											
					E18.4.	Zein hizkuntza ofizialean daude hedapen handieneko sare sozialean argitaratzen diren edukiak?											




Ardatza	Arla	Kod.	Alderazlea	Kod.	Galdera	KEMEN puntuazioa		AFAn dagokiona		Hasierako egoera		Aurrekusiako egoera		Aidea		Oharrak	
						Ponde-razioa (%)	Lortu ahal den gehiengo puntuazioa	Ponde-razioa (%)	Lortu ahal den gehiengo puntuazioa	Erantzuzko erantzunen balaia	Lortu-talo puntuazioa	%	Lortu-talo puntuazioa	%	Puntuazioa		
	2.1.2.arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK						80,0	168,0	80,0	168,0	59,4	99,9	85,0	142,8	25,6	42,9	
	2.1.2.25				Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	20,0											
		L8			Zein hizkuntza ofizialean hitz egiten diezu herritarrei, hainek zein hizkuntza erabili nahi duten esplikatu arte?	20,0		33,6	20,0	34,7	11,7	50,0	16,8	15,3	5,1		
	2.1.2.26				Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.												
		L9.1			Zein hizkuntza ofizialean ematen duzu zerbitzua, herritarrek zuri euskaraz hitz egiten dizutenean?	25,0		42,0	25,0	68,1	28,6	100,0	42,0	31,9	13,4		
		L9.2			Zer egiten duzu herritarra euskaraz aritzeko gai ez bazara?												
	2.1.2.27				Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	20,0		33,6	20,0	71,4	24,0	75,0	25,2	3,7	1,2		
		E19.1			Zein izan da hizkuntza ofizial nagusia erakundeak herritarrentzat antolatutako azken bost ekitaldietan?	10,0		16,8	10,0	90,0	15,1	90,0	15,1	0,0	0,0		
		E19.2			Zein izan da hizkuntza ofizial nagusia erakundeak antolatutako azken bost ikastaroetan?	10,0		16,8	10,0	52,7	8,9	60,0	10,1	7,3	1,2		
	2.1.2.28				Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.												
		E20			Zein hizkuntza ofizialean daude herritarrentzako idatzko komunikazioak?	15,0		25,2	15,0	49,0	12,3	100,0	25,2	51,0	12,9		
	2.1.2.29				Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.												
		E21			Zein hizkuntza ofizialean erantzuten zaie herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei?	20,0		33,6	20,0	69,3	23,3	100,0	33,6	30,7	10,3		


Erantzunak ez dira ez haztatuko, ez adierazle sistemara eramango.



Ardatza	Arlora	Kod.	Adierazlea	Kod.	Galdera	KEMEN puntuazioa		AFARI dagokiona	Hasierako egoera		Aurrekusiako egoera		Aldea		Oinarriak	
						Lortu ahal den gehieneko puntuazioa (%)	Ponde-razia (%)		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa	Ponde-razia (%)	Erantzunen balioa	Lortutako puntuazioa	%	Lortu beharreko puntuazioa		%
							70,0	490,0	70,0	22,4	109,6	29,7	145,7	7,4	36,1	
							30,0	147,0	30,0	17,9	26,3	22,0	32,3	4,1	6,1	
							20,0									
							10,0			Ez zen galdetu						Galdekizunean ez da galdetu
							10,0		28,6	9,0	3,8	12,0	5,0	3,0	1,3	
							25,0		35,7	15,6	8,2	20,0	10,5	4,4	2,3	
										14,6				5,4		
							20,0		28,6	25,1	10,6	30,0	12,6	4,9	2,0	
							5,0									
							5,0		7,1	35,9	3,8	40,0	4,2	4,1	0,4	



Ardaiza	Arlora	Kod.	Adierazlea	Kod.	Galdera	KEMEN puntuazioa		AFAn dagokiona		Hasierako egoera		Aurrekustiatiko egoera		Aldea		Oharrak
						Ponde-razia (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa	Ponde-razia (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa	Erantzunaren balioa	Lortu-talo puntuazioa	%	Lortu balio-eratio puntuazioa	%	Puntuazioa	
2.2.2. arloa: KANPO HARREMANAK																
		2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.													
		L17	Zein hizkuntza ofizial erabili ohi duzu sektore publikoko beste erakundeekin, ahozko harremanetan?													
		2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeek euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.													
		E26	Zein hizkuntza ofizialean daude sektore publikoko beste erakundeek azken urtean bidaltako dokumentuak?													
		2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.													
		L18	Zein hizkuntza ofizialean aritu ohi zara zure erakundeak harremana duen enprekin, ahozko harremanak izatean (horitzaileak, finantza erakundeak, erakunde kolaboratzaileak...)?													
		2.2.2.42	Enpresa pribatuek euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak													
		E27	Zein hizkuntza ofizialean daude erakundeak harremana duen enpresen (horitzaileak, finantza erakundeak, erakunde kolaboratzaileak...) azken urtean bidaltako dokumentuak?													
2.2.3. arloa: PRESTAKUNTZA																
		2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.													
		E28	Erakundeak urtean eskainitako prestakuntza orokorretik, zenbatekoa da euskarazkoa?													
		2.2.3.44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.													
		L19	Zein hizkuntza ofizialean jaso duzu prestakuntza orokorra azken urtebetean?													
		2.2.3.45	Hizkuntza trebakuntza eskaintzen zaie langileei.													
		E29	Langileek eskaintzen zaie euren lanpostuko zereginak euskaraz burutzen laguntzeko hizkuntza trebakuntzarik?													
2.2.4. arloa: BAliABIDE INFORMATIKOAK																
		2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabiltzen dituzten euskaraz erabili ditzakezun baliabide informatikoak.													
		L21	Zein hizkuntza ofizialean erabiltzen dituzte euskaraz erabili ditzakezun baliabide informatikoak?													



Ardatza	Arloa	Kod.	Adierazlea	Kod.	Caldera	KEMEN puntuazioa		AFAR dagokiona		Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Aldea		Oharrak	
						Ponde-razia (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa	Ponde-razia (%)	Lortu ahal den gehieneko puntuazioa	Eramtza-naren baloa	Lortu-tako puntua zoa	%	Lortu-tako puntu-azioa	%	Puntu-azioa		%
	2.2.5. arloa: SORTZE HIZKUNTZA						20,0	98,0	20,0	98,0	28,3	27,8	35,0	34,3	6,7	6,5	
		2.2.5.48			Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.												
		L22			Nola sortzen dituzu euskaraz edo ele bietan zabaldu behar dituzun idazkiak (dokumentuak, inprimakiek, mezu elektronikoeak, gutunak, ofizioak, bilera deliak, aktak...)?		20,0	98,0	100,0	98,0	28,3	27,8	35,0	34,3	6,7	6,5	
GUZTIRA						100,0	1000			32,9	328,9	47,8	478,0	14,9	149,2		